

LIMAREN AZALA

Iraitz Ugalde Pikabea, 16 urte

Lezo

Berriri busti zaizkio begiak, urtu, gau hura oroitzean. Igaro dira jada 27 bat urte. 27 urte luze, oso luze. Eta beltz, oso beltz. Hala ere, aurreko gaua balitz bezalaxe gogoratzen du. Ikusi dezake oraindik, gogamen beltzean, ibiza hori hura, platanokolorekoa, berengana hurbiltzen, zuzen, abiada bizian, gupida barik. Ikus ditzake auto haren foko indartsuegiak bere begiak betiko itsutzen... Eskua estutu du, zurbil, izerdi hotza kopetan behera duela. Edurnek fereka goxoak egin dizkio lepoan, eta izerdi tantak lehortu dizkio musuzapiaz. Badaki, senarra ondo ezagutzen baitu, haren pentsamenduen nondik norakoa. Bai, Txominen gogamenak denboraren makinan 27 urte egin berri du atzera eta aparkaleku hartan ikusi du bere burua beste hiru lagunekin batera. Barreka aritu ziren Josu, Patxi, Mikel eta laurak, alkoholaren umore sinpleaz ergelduta gau hartan.

–Txomin, eraman ezak heuk autoa, Josuk infernura eramango gaitik bestela... Hori duk aitzurra, hori... –esan zuen Mikelek lagunaren piura ikusita.

–Zer diok? Zukua besterik ez dik edan eta!
Horixe zuan tratua...

–Bada, zuku potentea inondik ere, pedalak bereizten ere ez likek jakingo eta! –barre egin zuen laurek.

–Tira, nik eramango diat, zutik egoteko gauza naizen bakarra nauk eta! –esan zuen Patxik umorez, gidariaren eserlekuan jesarritz.

A8-ko asfaltoa laztanduz, abian ziren lau lagunak abiada bizian. Musika altuak, oihuek eta kantuek, diskoteka bilakatu zuten Josuren aitaren autoa. Halako batean, jaia mila eta bat zatitan apurtu zuen *seat* horia azaldu zen kontrako norantzan. Gauaren beltzetik irtendako bi fokuek mehatxu egin zioten lau lagunen autoari. Geroz eta hurbilago, geroz eta gertuago... Parean zuten auto horia, aurrean, gainean, gertu gertuegi. Patxik bolantazo batez bidetik atera zuen autoa, besteak haren ipurdiaren aurka soilik jotzea lortuz. Hala ere, hitzez azal ezin daitekeen hots batek burrunba egin zuen A8-aren zainetan. Talka bortitza izan zen. Autoen kristalak, paratxoak, pneumatikoak... guztiak airera. Kristalez gain, 25 urte ez zituzten mutil gazte haien biziak ere apurtu ziren gau hartan.

Txominek orduantxe utzi zion 25 urte izateari, bihotzak lanean segitzen zuen arren, bizirik zegoe-la zioten arren, heriotzaren ateetan ziharduen lotan. Kolpe handiagoa hartzen ei du albokoak gidariak baino. Bada, kolpeetan handiena egokitu zitzaion Txomini apirilaren 19 hartan.

Hiru hilabeteren ondoren esnatu zen ospitaleko gela argitsuan. Begiak zabaldu zituen nagiki. Film bateko eszena tipikoa bizi izan zuen orduan: ohearen inguruan zituen ama, arreba Ane, Patxi eta Josu, hurrenez hurren. Begiak zabaldu eta soa, hasieran lausotua, argitu ahala, senitartekoak ezagutu eta negarrari emango zion musu soinutsu eta besarkada artean. Ez zen film bat, ordea, eta Txominek ez zuen gozatu bere protagonistaren paperaz. Begiak zabaldutakoan isilik geratu zen, ez zuen negarrik egin, ez zuen inor besarkatu. Eta berriro saiatu zen begiak zabaltzen, jada zabalduak zituen arren, ezer ikusten ez zuelako. Eta berriro, Eta beste saiakera bat, bi, hiru, hamasei... Amak negarrari eman zion semea delirio arinen bat jasaren ari zelakoan.

–Ama! Ama... lagundu begiak zabaltzen...

–Hi, zer diok? Zabalik dituk eta! Ondo al hago? –esan zion Josuk harriduraz.

Eskua hurbildu zion betaurrera bortizki, baina Txominek ez zuen zirkinik ere egin. Izutu egin zen laguna. Eta ez Josu bakarrik, Ana, Patxi eta malkotan zerraien ama ere bai. Begiradazko elkarrizketa urdu-riak minutu gutxi iraun zuen ohearen inguruan.

–Lo al nago? Josu... hor hago oraindik?

–Serio diok? Ez nauk ikusten? –Josuk eskua hartu zion lagunari.

Medikuek ahal izan zuten guztia egin omen zuten. Galdutako ikusmena berreskuratuko zuela zioten, berandu baino lehen, istripuaren behin-behineko sekuela bat besterik ez zela eta itzuliko

zela bere onera. Baina, Txominen ikusmena, iheslari hori, ez zen etxera itzuli.

Udazkeneko egun hartan, Patxik bultzatako gurpildun aulkian atera zen Txomin ospitaletik. Ez zuen lesiorik oinetan, ez eta bizkarrean ere, baina ez zen espazioaren mugak kontrolatzeko gauza oraindik.

–...Ba horixe, platanozko ibiza hark jo zian autoa. Eta ni, tira, ni bolantean...

–Bizia salbatu hidan...

–Bizia salbatu? Eta ikusmena eraman, garesti atera zaik. Gureztat sustoa besterik ez zuan izan. Mikeli aspaldi sendatu zitzaion kristaltxoek eragindako betondoko zauria. Josuk berriz, onartua dik jada ez duela ez aitaren autorik ez haren konfiantzarik berreskuratuko. Apurtu zuen hankaren errehabilitazioa ere hobeto zihoak. Baina hi...

–Eta hi zer? Begi itsu hauek aski dituk hire damua ikusteko. Ez al diok heure buruari barkatu behar? Ez al haiz biziko aurrerantzean? Gau hartan hil hintzela dirudik... Bizitzak aurrera jarraitzen dik, biontzat. Itsu izatean ikusmena galtzen duk, ez zoriontsu izateko gaitasuna... Esan diat lehen ere, bizia zor diat, txo! Bizia zor diagu hirurok!

Hunkituta jaitsi zuen Patxik begirada zorura. Hori adorea, hori bizitzeko gogoa... Baina, ez ziren nahikoa lagunaren hitz politikak, bere buruarekin haserre egongo zen aurrerantzean.

Txomin amaren etxean jarri zen bizitzen. Anek, arrebak, laguntzen zion egunerokoan, bolada baterako bertara joan baitzen bizitzera bera ere. Baina, Txomin errudun sentitzen zen:

–Ni naiz ezindua, ez zuek. Ez ditut zuen bizimoduak hankazgora jarri nahi, neure kabuz bizi nahi dut, besterik ez, independentea izan! Hainbeste eskatzea al da?

Lanean hastea erabaki zuen eta Aneren laguntzaz bilaketari ekin zion. ONCEren eskaintza zabalak poztu zuen Ane, baina hori ez zen Txominen gustukoa, baztertua sentituko zen lan horretan.

Goiz hartan ere, sesioa izan zuen Anerekin lanpostua zela eta ez zela.

–Kale izkinan bukatzea nahi duzu? Lepotik zintzilid dudan kupoi bakoitzean ene ezintasuna azpimarratzea? Ez naiz itsu ezgauza bat, aditzen? Lanpostu arrunt bat nahi dut, bizimodu normala izan. Ez dut neure burua itzalera kondenatuko. Pertsona naiz ni ere, bizi egin nahi dut!

Azkenean, alde egin zuen etxetik, sutan. Eskailerak kontu handiz eta zailtasun handiagoz jaitsi eta etxepeko fruta-dendara joan zen.

–Ze habil, Txomin? Paseoan? –Alberto fruta saltzailea oso laguna zuen.

–Alferrik, ezin neure kabuz moldatu... mmm... lima ederrak...

–Noiztik dituk *Kaxianoren* betaurreko horiek ikusteko gai?

Barre egin zuen Txominek.

–Usaimena ez diat oraindik galdu...

–Ikusten diat! Egingo al diagu joko bat? Nik eskuetara fruta bat emango diat. Zer den asmatzen baduk, hiretzat!

–Hiru urteko haurrak bezalaxe... –barre txikia Txominek– Ados! –eskura eman zion Albertok, egurrezko kaxatik hartuta, esandako fruta hura– ... leuna, luzea... usaintzea posible al duk?

–Bai motel...

Banana gozoegiak bete zituen Txominen sudur barrunbeak. Lurrera jausi zitzaion fruta horia, oroitzapenen mikatzak barrua irauli zionean.

–Ez al zaik platanoa gustatzen? –esan zion Albertok lagunari, hau tristatu zela ikusita, egoera arindu nahian.

–Platano kolorea zian gurearen aurka talka egin zian autoak. Hori duk oroitzen dudan azken kolorea...

–Tira, ez hadi goibeldu, laranja pareta emango diat orduan, hire arreba pertxenta horri zuku bat egiteko... –esan zuen Albertok pikaro, Ane gustuko baitzuen.

Alberto mutilzaharra zen, jakintsua eta bihotz onekoa. Saltzaile paregabea zen gainera, goizero etxeoandreei bitaminen eta gatz mineralen berri eman eta irri eginez saltzen zizkien fruta kiloak eta kiloak. Txomin beste edonoren moduan tratatzen zuen eta hori asko eskertzen zion gazteak.

Lagun minak egin ziren denborarekin, handik aurrera Txomin goizero jaisten hasi baitzen frutadendara laranja bila. Behin bere lan arazoek berri eman zion eta halaxe mintzatu zitzaion fruta saltzaileak:

–Zergatik ez haiz nirekin lanean hasten? Ni baino trebeagoa haiz emakumeak limurtzen eta... irabaziak bikoiztuko ditiagu bion artean... –barre

egin zuten bi lagunek– benetan ari nauk... hator nahi duanean laguntzera, eta gustatzen bazaik, hitz egingo diagu soldataz.

Txomin bezainbeste poztu zen Ane Albertoren eskaintzaz. Baita Alberto bera ere, Anek nebari emandako aukera irri ezti batez eskertu zionean. Eta egun gutxiren buruan, Txominek fruta saltzeari ekin zion.

Huraxe izan zen beraren terapia. Fruten inguru-ko sekretu guztiak ikasi zituen. Limaren usaina limoiarena baino mikatzagoa zen, eta platanoaren horia limoiarena baino horiagoa. Gehien atsegin zuena lima zen, bezeroei eman aurretik haren zulotxo berde nabariezinak bilatzen eta sentitzen ahalegintzan zen.

Bezeroak ezagutzen hasi zen, harremanak zabaltzen, jendearekin hitz egiten... Bizitza berre-raiki zuen fruta saltzeari esker. Lan erraza zen berarentzat, usain eta formarengatik ondo identifikatzen baitzituen frutak. Horrez gain, atsegin zuen besteek beraren beharra izatea, gauzak eskatzea, bera bakarrik ez izatea besteen beharra zuena.

Gerora, urte askoan beraren bezero izan zen emakume batez maitemindu zen. Edurnek ile horia zuen, limoiaren horia, ez platanoarena. Bazekien argala zela, bazekien betile luzeak eta ile kizkurra zituela, bazekien titi txikiak zituela, gerribuelta zabala... Baina inoiz ez zuen jakin haren begien berdea lima kolorekoa zela. Elkar maitatuz, bizitza berri bati ireki zizkioten ateak. Zaila izan zen, baina polita.

Zoriontsu da orain, koloretako fruten dendatxoan, Edurnerekin etxean bizitzen, ohe berean lotan, eskuak batuta paseatzen... Bere bizitza limaren azalaren antzekoa dela esaten du. Limaren azalak zulo txo nabariezinak baititu, bete ezinak. Eta berak ere bai, ikusi ezinak sortzen dizkion hutsuneak. Baina, horren gainetik zoriona ukitzeko gai omen da hatz muturrez, berdetasunari eusteko gai, Edurneren laguntzaz paseatuz eta irri eginez. Kanpotik ezindua dirudien gorputzaren barruan, nortasun bizi bat du gordeta, limak mamia duen bezala, bizi-bizia. Are biziago udaberrian. Eta udaberria da egunero Txominentzat Edurnerekin bizi denetik. Orain zoriontsu da, gaur bezala, begiak bustiko zaizkion arren apirilaren 19 hartara irudimenaz bidaiatzean.